

# AURKEZTU BEHARREKO AGIRIEI BURUZKO ARGIBIDE OROKORRAK

## ATARIKOA

- Laguntzen izapidetzea aurrez aurrekoa eta/edo elektronikoa izan daiteke, laguntzak arautzen dituen aginduak dioenaren arabera.
- Behin [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) helbidean eskura dauden eranskin edo inprimakiak bete ondoren, bide elektronikoa aukeratzen bada horiek atxiki egingo dira, eta aurrez aurreko bidea aukeratzen bada deskargatu egingo dira.
- Izapidetze elektronikoa kasuan, dokumentazioa aurkeztu beharko da:
  - Eskaerarekin batera aurkezten bada, helbide elektroniko berean atxikiko da.
  - Eskaeraren ondotik aurkezten bada, "[nire gestioak](#)" atalaren bitartez egin beharko da.

## ESKATZAILEAREN AGIRIEI BURUZKO JARRAIBIDEAK

### Pertsona edo entitate eskatzailea identifikatzea

#### a) Pertsonak fisikoak:

- Pertsonak Administrazioari baimena ematen badio Barne Ministerioan egiazta dezan identitate-datuak benetakoak direla, orduan ez da beharrezkoa agiririk aurkeztea, eta honako hau markatu behar du eskabide-inprimakian:
  - *Baimena ematen diot deialdi honetako organo kudeatzaileari, bide telematikoen bitartez edo eskura dauden bideen bitartez administrazio eskudunean bidezko egiaztapenak egiteko.*
- Pertsonak ez badio Administrazioari baimenik ematen datuok egiaztatzeko, honako honen bidez frogatuko du hori:
  - Nortasun Agiri Nazionala, pasaporte edo pertsona fisikoa identifikatzeko balio dezakeen antzeko agiriren bat.

#### Izapidetze elektronikoa:

Pertsona-egiaztagiri batez identifikatu bada, ez da beste agiririk aurkeztu behar.

#### b) Pertsona juridikoak:

- Elkarte, fundazioa edo kooperatiba Euskadiko Erregistroetan izena emanda badago:
  - Ez da beharrezkoa eratze-eskriturarik, estatuturik edo erregistroko inskripzio-agiririk aurkeztea. Horretarako, hauxe adierazi behar du eskabide-inprimakian:
    - *Entitate eskatzailea Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte/fundazio/kooperatiben erregistroan legez sortu eta inskribatuta dagoela ..... datan.*
  - Legezko ordezkariaren identitatea eta ahalorde-eskritura egiaztatu beharko ditu, hurrengo bidez:
    - Ahalordearen eskritura, edo dagokion organoak espresuki emandako ziurtagiria, edo entitate eskatzailearen idazkariak emandako ziurtagiria.

- Ordez kariaren Nortasun Agiri Nazionala, pasaporte a edo pertsona fisikoa identifikatzeko balio dezakeen antzeko agiriren bat.

Pertsona ordez kariak Administrazioari baimena ematen badio Barne Ministerioan egiazta dezan identitate-datuak benetakoak direla, orduan ez da beharrezkoa agiririk aurkeztea.

- Administrazio honetakoak ez diren erregistroetan inskribatutako entitateek haien legezko eratzea egiaztatu beharko dute, beren izaera juridikoaren arabera, bai eta pertsona ordez kariaren identitatea ere; gainera, ordez karitza-ahalorde nahikoa dutela justifikatu behar dute. Horretarako, agiri hauek aurkeztuko dituzte:
  - Sortze-eskritura eta estatutuak, edo izena emanda dauden erregistro ofizialaren ziurtagiri jatorrizkoa, entitatearen inskripzioa indarrean dagoela egiaztatzen duena.
  - Identifikazio Fiskalaren Zenbakiaren txartela.
  - Ahalordearen eskritura, edo dagokion organoak espresuki emandako ziurtagiria, edo entitate eskatzailearen idazkariak emandako ziurtagiria.
  - Ordez kariaren Nortasun Agiri Nazionala, pasaporte a edo pertsona fisikoa identifikatzeko balio dezakeen antzeko agiriren bat.

Pertsona ordez kariak Administrazioari baimena ematen badio Barne Ministerioan egiazta dezan identitate-datuak benetakoak direla, orduan ez da beharrezkoa agiririk aurkeztea.

#### **Izapidetze elektronikoa:**

- Entitatea identifikatu bada “Erakundea” motako ziurtagiriarekin, ez du agiririk aurkeztu beharko, ziurtagiri horrek berak jada berekin dituelako egiaztatze-enpresak egiaztaturiko datuak.
- Entitatea ordez kariaren pertsona fisikoaren ziurtagiriaren bidez identifikatu bada, aurreko puntuan kasu bakoitzerako eskatzen diren agirien bidez egiaztatu beharko da.

---

### **Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea egiaztatzea**

- Pertsonak baimena ematen badu Administrazioak egiazta dezan egoitza-datuak benetakoak direla, orduan ez da beharrezkoa agiririk aurkeztea, eta honako hau markatu behar du eskabide-inprimakian:
  - *Baimena ematen diot deialdi honetako organo kudeatzaileari, bide telematikoen bitartez edo eskura dauden bideen bitartez administrazio eskudunean bidezko egiaztapenak egiteko.*
- Pertsonak baimenik ematen ez badu, edo Euskal Autonomia Erkidegoan gutxieneko epe batean egoitza edukitzea exijitzen bada, honela egiaztatuko da egoitza hori:
  - Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatua dagoela egiaztatzen duen erroldatze-ziurtagiria, dagokion organoak emana.

---

### **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafean alta emanda egotearen egiaztagiria**

- Pertsonak Administrazioari baimena ematen badio jarduera ekonomikoen zergari dagokion epigrafeko datuak egiaztatzeke, orduan ez da beharrezkoa agiririk aurkeztea, eta honako hau markatu behar du eskabide-inprimakian:

- *Baimena ematen diot deialdi honetako organo kudeatzaileari, bide telematikoen bitartez edo eskura dauden bideen bitartez administrazio eskudunean bidezko egiaztapenak egiteko.*
- Pertsonak ez badio baimenik ematen Administrazioari, jarduera ekonomikoaren zergari dagokion datuak egiaztatu beharko ditu, hurrengoaren bidez:
  - Jarduera ekonomikoaren zergari dagokion epigrafearen ziurtagiria, bere bulego tributarioak emana.

---

### **Proiektu berarentzat eskatu eta lortu diren beste laguntzen gaineko adierazpena eta haien zenbatekoa**

---

- I. eranskina bete behar da, bakarrik laguntzaren bat eskatu/jaso bada.

---

### **Aurreko hiru ekitaldi fiskaletan jasotako minimis motako beste edozein laguntzari buruzko adierazpena**

---

- II. eranskina bete behar da, bakarrik minimis motako laguntzaren bat jaso bada.

---

### **Hirugarrenaren altari buruzko agiria**

---

- Agiria bete beharko da baldin eta pertsona/entitate eskatzailea erregistratu gabe badago Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Hirugarrenen Erregistroan, edota Erregistroan dauden bere bankuko datuak aldatu nahi baditu. Horretarako, euskadi.net-eko eredia erabili behar da.

Pertsona eta erakunde interesdunek bide elektronikoak erabili ahal izango dituzte deialdi honetako izapideak eskatzeko, kontsultatzeko eta bideratzeko.

Izapidetze elektronikoa honako lege-arau hauetan araututa dago:

- 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa
- Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, e-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa —PLATEA— ezartzen duena

Eskabidearen ondoko izapideak, bide elektronikoa erabiliz, hemen egin daitezke:

<https://www.euskadi.net/misgestiones>.